

BIMEP


(Biscay Marine Energy Plataform)

Informe sobre la Plataforma de Producción Energetica en la costa de Bizkaia

INTRODUCCIÓN GENERAL DEL INFORME

En Eguzki apoyamos toda producción energética que cumpla los preceptos necesarios de sostenibilidad ambiental y ecológica desde parámetros de ahorro energético, renovable y no contaminante, y acorde con necesidades evaluadas y ponderadas social y democráticamente. Las energías que no cumplan estos principios, por muy "verdes" que se nos quieran presentar, **tendrán nuestra oposición y denuncia socio-ecológica**. Este es el caso del Bimep.

BIMEP: Biscay Marine Energy Plataform (Armintza - Bizkaia)




Por otra parte, y en todo lo que respecta al sector energético, numerosas veces hemos alegado y denunciado omisiones y carencias en los preceptos señalados anteriormente, tanto en la “Directrices de ordenación territorial del Gobierno Vasco” (Las D.O.T), los “planes territoriales parciales” (Los P.T.P), derivados de las mismas, y los “Planes territoriales sectoriales” (Los P.T.S) etc.

Pues Bien, sobre esos referentes en estos últimos tiempos determinados organismos oficiales y empresas, al margen de esas carencias y omisiones técnico-políticas de dichos planes, han propiciado una investigación y ampliación de producción energética CON UNA “IMAGEN” de ALTERNATIVA “VERDE”, quizá para aparentar, (y ese es nuestro parecer), el cumplimiento de determinadas normativas medio-ambientales y legislaciones existentes y actuales, propias y Europeas.

Concretamente en ese sentido se enmarca el proyecto experimental de la plataforma de producción eléctrica en la costa y territorio colindante con el puerto de Armintza, que está avalado, al parecer, por el G.V. a través del “ente Vasco de la energía” (El E.V.E) y realizado fundamentalmente por “IBERDROLA”.

En Eguzki siempre hemos considerado nuestra actividad y militancia social-ecologista desde principios constructivos y alternativos, a favor o en contra de determinados proyectos, planificaciones y actuaciones sobre todo el territorio de Euskal-Herria por parte de instituciones, empresas u organizaciones; tanto públicos como privados. Es por ello que este informe de análisis crítico y alternativo de la instalación y proyecto actual citado se enmarca dentro de esa consideración ideológica y ecologista, propia e independiente.

Debido a ello informamos en primer lugar en que consiste el proyecto de Armintza, según la información que poseemos por boca de sus propios promotores.



NOTAS GENERALES DEL PROYECTO

SEGÚN SUS PROMOTORES

La plataforma Bimep (Biscay Marine Energy Platform), una estructura que recogerá la energía de las olas del mar y la convertirá en eléctrica.

Es un proyecto previsto en la costa de Armintza para el año 2011. El proyecto prevé producir entre el 7% y el 10% de la electricidad que se consume en la CAV.

Una boya oceanográfica ya ha determinado que el potencial de aprovechamiento de la fuerza del mar del País Vasco es medio-alto: 24 kilovatios por metro. El proyecto inicialmente cuenta con una inversión de entre 15 y 20 millones de euros y generará la electricidad suficiente para cubrir el consumo de 6.000 familias. Además, evitará la expulsión a la atmósfera de hasta 1,54 millones de toneladas de CO₂. La plataforma a su vez, generará cerca de 200 puestos de trabajo entre directos e indirectos, según afirmó el Director del EVE.

La infraestructura consiste en el tendido de cuatro cables que partirán de Armintza y se introducirán en el mar – el punto más cercano estará a 750 metros de la costa-, a una profundidad de entre 50 y 90 metros. A través del extremo de cada hilo, los prototipos enviarán la energía que obtengan hacia una subestación en tierra que convertirá la fuerza de las olas en energía eléctrica. La plataforma ocupará una superficie total de ocho kilómetros cuadrados. También habrá un centro de investigación en el que se recogerán los datos de producción y todo tipo de variantes sobre la tecnología que se utilice.

El proyecto tiene además como objetivo atraer a las instituciones, universidades y empresas que estén trabajando en la creación de prototipos de aprovechamiento de la energía marítima en eléctrica para que los prueben en Armintza. De momento, el director del EVE confirmó que ya hay una empresa vasca, Oceantec, participada por Iberdrola y Tecnalía, interesada en el programa.

En España, Santander ya cuenta, de forma experimental, con la Planta de la Energía de las Olas. Allí, una boya de 35 metros de longitud y de 10 de diámetro, produce una energía de 10 kilovatios. El proyecto cántabro prevé la instalación de otras nueve boyas que en total producirán la electricidad que se consume en 2.500 casas.

La subestación en tierra también enlazará con una línea de alta tensión (prácticamente en desuso) que anteriormente servía de suministro a la central atómica de Lemoiz en la cala de Basorda. Dicha línea es de 30 kw. Es probable otro enlace con otra línea antigua existente en dicha zona cercana a Basordas.

Se prevé también expropiar algunos terrenos de particulares afectados para dichas instalaciones en tierra, de calificación rústica y de caseríos.

PRINCIPALES CONDICIONANTES *QUE OPONEMOS A ESTE PROYECTO*

Es un proyecto que debe partir de un estudio en profundidad, cuya información completa se traslade a toda la sociedad, y se ofrezcan cauces de participación a todos los agentes sociales interesados, para poder valorar, contrastar los pros y contras, y adoptar una decisión de consenso al respecto.

Al ser un estudio sobre el aprovechamiento de otro modo de producción energética, junto a la valoración de los costes medioambientales, se debe vincular con un cuestionamiento del modelo de sobreconsumo de energía, de incremento constante en el modo de vida y, de producción para ser consumida toda la energía que se dispone o pueda en un futuro demandar. En este sentido, Eguzki cree imprescindible que el estudio de un proyecto, como el de la Plataforma Bimep, tome como condición previa el cuestionamiento del modelo energético, el incremento sin fin del consumo de energía, y la generación de todas y cada una de las formas de energía sin que ninguna de ella sea sustitutiva o alternativa real de otros modos de producción.

Por lo tanto, sin un real cuestionamiento del modelo de producción y consumo energético, ni una apuesta por la reducción del consumo y por la sustitución de modos de producción, Eguzki no puede respaldar la experimentación marina del Bimep.

Especialmente, debemos destacar que el Mar/la Mar supone un espacio no accesible para el ser humano y agredido de manera constante con las limitaciones que nos impone como espacio físico. El mar es una oportunidad por los valores que encierra, incluidos los energéticos, pero, a la vez, supone un espacio natural agredido cuya vida ya ha sido esquilada en su mayoría. Por este motivo, el ecosistema marino es un medio cuya protección debe alcanzar la prioridad de su valor reconocido internacionalmente.

Si el proyecto de la plataforma Bimep significa un contraste y sustitución de otros modos de producción energética y compromiso real por la reducción del consumo, es decir, si supone la eliminación de la energía nuclear y la térmica, podría suponer un proyecto a estudiar y valorar positivamente, sobre la premisa de sopesar los costes y perjuicios que genera en comparación con estos modos de producción, y siempre en relación con una evaluación global e integral de investigación y aplicación de energías alternativas y renovables.

Por otra parte, como todo proyecto de investigación que experimente en un espacio natural, Eguzki reclama que en todo caso se estudie, evalúe y garantice, tras el tiempo de explotación o experimentación, la reversión a su estado originario del espacio y del ecosistema invadido y desnaturalizado con este proyecto.


Así mismo, el “Ente Vasco de la Energía” (E.V.E) sigue sin clarificar los fines, objetivos y necesidades, (máxime en estos TIEMPOS DE CRISIS GLOBAL) de la producción y consumo energético de Euskadi, tanto a corto, medio o largo plazo, como tampoco ha

especificado justificadamente los modos y métodos que propiciará en relación con un desarrollo o urbanismo integral y ecológicamente sostenible. Es evidente también, que la descoordinación entre las diferentes instituciones públicas en su actuación de proyectos e intervenciones en todo el territorio de nuestro país, ponen aún más en evidencia las carencias de las evaluaciones citadas, sobre todo en relación con los presupuestos económicos prioritarios y públicos.

Además, otro aspecto importante para nosotros, como movimiento ecologista vasco es el determinar y debatir sobre el futuro del complejo estructural y territorial de las instalaciones de la “EX-CENTRAL ATÓMICA DE BASORDA” que subyace por colindancia. Con dicha “plataforma Bimep”.... ¿La derivación productiva de energía eléctrica de la plataforma marina pudiera usarse para poner o ayudar a reconvertir otros medios de funcionamiento de las instalaciones de Basorda?

ESTO EN TODO CASO ES UN ASPECTO COLATERAL QUE CONSIDERAMOS MUY IMPORTANTE CLARIFICAR EN RELACIÓN CON TODO LO EXPUESTO EN ESTE APARTADO DE NUESTROS CONDICIONANTES DE APROBACIÓN !! LOS “P.T.P” Y LOS “P.T.S” QUE CONOCEMOS NO DICEN NI CLARIFICAN NADA SOBRE ESTE SENTIDO”!!

Otro aspecto “colateral”, pero no menos importante, que constatamos es que con ciertas “producciones de energías verdes” el coste de la factura de la luz se ha elevado un 17% en todo el estado, según un informe reciente del propio gobierno español; mucho más que la subida media que dichas “producciones verdes” ha supuesto en la Unión Europea, que ha sido del 5% ¿Esto cómo se explica?



Desde Eguzki nos sorprende la hipocresía de las diversas instituciones al vender el Bimep como un proyecto ambientalmente sostenible o ecológico para nuestra pequeñísima costa, la cual cada día esta mas masacrada, con el superpuerto del gran Bilbao, la intención de hacer una calcomanía en el puerto Pasaia, la proliferación de puertos deportivos y la urbanización salvaje de nuestra costa.

De hecho, un millón cien mil personas se concentran en un 12% de nuestro territorio y de ese tanto por ciento una gran parte se pretende aumentar y expansionar hacia el área de Uribe-Kosta, zona donde se pretende instalar la plataforma.

*¿Tenemos tantos Km. de costa no cementada como para permitirnos la ocupación de nuestro litoral con 8 Km² de placas en nuestra mar?

*Más importante todavía ¿algún día nos vamos a parar a medir el cada vez más desproporcionado consumo energético que va a más en Euskal Herria?

*¿Vamos a seguir cementado nuestra costa destruyendo caladeros, acantilados y ocupando terrenos rurales?

*¿Cuantos proyectos mas de parques eólicos, térmicas y etc... Tiene en ejecución el G.V por el *"bien del progreso y del tejido industrial"*?

*Precisamente el entorno de Lemoiz tiene mucha riqueza ambiental, por lo que debería tener una mayor protección. Incluso se podría crear una reserva marina.

*¿Acaso la creación de algunos puestos de trabajo justifican cualquier tipo de agresión medio ambiental?

Respecto al proyecto de Bimep

- ¿Por qué dicho proyecto no necesita estudio de impacto ambiental?
- ¿Para tan extensa ocupación de la mar no haría falta dicho estudio?
- ¿Acaso en dicha costa no se contempla fauna y flora? ¿Y el impacto visual?
- ¿Acaso dichas bollas no van a llevar sedimentos grasos o antioxidante?
- ¿Para tan solo 20 MW de energía merece la pena tal destrozo natural?

En este caso desde Eguzki no compartimos tan alto peaje ecológico por la investigación de Energías renovables. ¿Quien nos dice que el día de mañana donde son 8 Km² de placas no se convierte en 16 Km² ?

Numerosas razones para oponernos de momento al Bimep

La ocupación y urbanización de nuestra costa es cada vez más salvaje. La destrucción y contaminación de nuestra mar cada vez mayor.

Las energías renovables que se están produciendo en la actualidad, no son alternativas o sustitutas de otras fósiles y contaminantes. Al contrario, solo son especulativas. Como Eguzki no estamos dispuestos a sacrificar ni un metro más de nuestro mar y nuestros montes para el provecho económico de unos pocos.

Ante el sin sentido creciente de consumo energético en nuestro territorio, denunciamos la poca planificación y sensibilización, el derroche con macro proyectos como el TAV y el negocio del actual sistema de abastecimiento energético hoy existente, por lo tanto pedimos debate social y moratoria de todos los proyectos sobre producción energética en Euskal Herria, hasta que el conjunto de la sociedad decida.

El área inicial de la dicha plataforma energética se pretende imponer sin debate socio-político y democrático del propio pueblo y ayuntamiento de Lemoiz al que pertenece. Constatamos también oposición y alternativas críticas de determinadas asociaciones socio-ecológicas de la zona, así como cofradía y pescadores profesionales y aficionados del puerto de Armintza, que según los condicionantes de la situación de impedimento de acceso al puerto por la ubicación de la plataforma, hacen y haría peligrosa y casi imposible la actual vía de salida y aproximación al puerto.

En el entorno marítimo S.O, N.O, y N. de dicho emplazamiento es zona de caladeros y pesca de bajura local, e incluso de pescadores de Bermeo, ¿Qué pasará con todo ello por la instalación inicial y ampliación prevista?

Recientemente hemos constatado y apoyado la propuesta y análisis científico sobre la creación de un corredor ecológico entre Donostia y Biarritz que han realizado Oceana (Organización internacional que trabaja para proteger y recuperar océanos y mares del mundo) y el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi (COBE) con el objetivo de salvaguardar la flora y la fauna del fondo marino y marítimo-terrestres de la zona.

Entre otras cuestiones similares y por analogía estas instituciones científicas han denunciado que el gobierno español y el vasco no han cumplido ni cumplen con sus obligaciones respecto a la RED NATURA 2000 ni con la DIRECTIVA DE HÁBITATS DE LA U.E. Donde el horizonte máximo de su cumplimiento es el año 2012.

El área y concepto de ejemplo científico-ecológico es igual o similar en todo el entorno marítimo en que se ubica el proyecto, y carece de evaluación correcta y suficiente de impacto ambiental, sobre todo en relación con la circulación y hábitats de especies piscícolas, etc. autóctonas y de aves marítimas, así como el impacto en la pesca de bajura local. Recordamos también que la LEY DE PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE incluye entre sus objetivos LA CRECIÓN DE UNA RED DE ESPACIOS PROTEGIDOS

..... y concretamente en el artículo 26 se cita textualmente que:

“Hay que fomentar la conservación de corredores ecológicos y de aquellos elementos que resulten primordiales para las protecciones en fondos y superficies de entornos marítimos-terrestres”

Consideramos que los entornos de Armintza, Basorda, etc. deben tener de pleno dichas consideraciones legales, y que el ejemplo citado de la actuación e informe-propuesta de Oceana y Cobe es aplicable por necesidad y analogía ampliada a la costa de Armintza-Bakio-Bermeo.

Todas las consideraciones descritas nos hacen plantear las siguientes preguntas:

- *¿Hacia donde vamos en la demanda y producción energética y a que coste?
- *¿Es posible una planificación responsable y sostenible sobre el desarrollo de dicha producción?
- *¿A que obedece este incesante crecimiento energético, cuando el estado exporta un 20% del excedente de la producción energética total?
- *¿Como debiera ser la ocupación y urbanización de nuestra costa? ¿Deben establecerse zonas de protección estricta?
- *La falta de respuestas a estas preguntas tienen de forma verificable los resultados existentes que describimos:
 - Ocupación y urbanización especulativa y cuasi salvaje de nuestra costa.
 - Destrucción y contaminación progresiva de nuestro mar, con atentados contra la biodiversidad.
 - Desaparición progresiva de nuestros arantzales por falta de caladeros y protecciones de hábitats.
 - Necesidad imperiosa de reservas marinas para las generaciones futuras y venideras.
 - Pérdida de identidad como pueblo, convirtiéndonos en un trozo de península cementada más.

Ante todo ello y como corolario de todo lo descrito en este informe, terminamos diciendo:

**¡ ENERGIAS RENOVABLES SI
PERO NO A CUALQUIER PRECIO
NI DE CUALQUIER MANERA**

Comisión de planificación urbanística, ordenación territorial y medio-ambiente de Eguzki

Junio de 2010

BIMEP


(Biscay Marine Energy Plataform)

Bizkaiko kostaldeko Energia Ekoizteko Plataformari buruzko txostena

TXOSTENAREN SARRERA OROKORRA

Eguzkin, demokratikoki aztertutako beharrezanean dagokion eta iraunkortasun ekologikoarekin bat datorren edozein energia-ekoizpen ereduaren alde jotzen dugu. Printzipio hauek betetzen ez dituzten energia-ekoizpen moduek, “berde” bezela saltzen dizkiguten arren, gure aurkakotasuna eta salaketa sozio-ekologikoa topatuko dute. Hau da BIMEParen kasua.

BIMEP: Biscay Marine Energy Plataform (Armintza - Bizkaia)




Bestalde, sarritan zabaldu eta salatu dugu, energia-sektoreari dagokionez, DOT, PTP edota PTS planetan gai hauek ez direla nahikorik jorratu eta egin denean gabezi askorekin izan dela.

Azkenaldian, hainbat erakunde publiko eta enpresek aipatutako omisio eta gabezietaz gain itxura BERDEdun energia-ekoizpena ikertzen eta areagotzen ibili izan dira, agian (gure iritziz aukerarik posibleena) ingurugiroaren inguruko zenbait araudi eta legedi, propioak edo Europakoak, betetzeko.

Honetan oinarritzen da Eusko Jaurlaritzak, E.V.E.ren bitartez, sustatzen ari den eta IBERDROLAk burutuko duen ikerketa plataforma.

Eguzkin beti bideratu dugu gure borroka sozial-ekologista sortze printzipio alternatiboetatik eta hainbat instituzio, erakunde edo enpresek, publikoak zein pribatuak, Euskal Herrian bideratu dituzten proiektu, plangintza eta jokabideren alde edo kontra. Hori dela eta, aipatutako proiektu eta instalazioaren gaineko azterpen txosten alternatibo hau ideologia ekologista, berezkoa eta askean kokatzen da.

Beraz, lehendabizi, Armintzako proiektua zertan datzan azalduko dugu, egileen ahotatik jasotako informazioaren arabera.



PROIEKTUAREN OHAR NAGUSIAK

EGILEEN ARABERA

Bimep plataforma (Biscay Marine Energy Plataform), itsasoko olatuen energia hartu eta elektrikoa bilakatuko duen egitura da.

Armintzako kostaldean 2011 urterako aurreikusita dago. EAEn kontsumitzen den energiaren %7 eta %10 artean sortzea aurreikusten du.

Buia ozeanografiko batek zehaztu du Euskal Herriko itsasoaren indar aprobetxatze potentziala ertain-altua dela: 24 kilowatio metroko. Proiektuak 15 eta 20 milioi euro bitarteko hasierako inbertsioa behar du eta 6.000 familien kontsumoa asetuko du. Horrez gain, CO₂ko 1,54 milioi tona kanporatzea ekiditu lezake. Plataformak, gainera, 200 lanpostu zuzen eta zeharkako sortuko lituzke, EVEko zuzendariak esan zuenaren arabera.

Azpiegitura Armintzatik itsasoan sartuko diren lau kabletan datza, 50 eta 90 metro tarteko sakoneran. Punturik hurbilena kostaldetik 750 metro ingurura dago. Kabletan zehar olatuei esker lortutako energia lehorrean egongo den azpiestazio batera bidaliko da. Plataformak, guztira 8 kilometro karratutako azalera izango da. Ekoizpenaren eta erabilitako teknologiaren gaineko datuak bilduko dituen ikerketa zentrua ere egongo da.

Horrez gain, proiektuaren helburuetariko bat itsas-energia aprobetxatzeko prototipoak sortzeko lanetan dabilzan instituzio, unibertsitate eta enpresak erakartzea da, hauek bertan proba ditzaten. Momentuz, EVEk baieztatu du badagoela dagoeneko euskal enpresa bat, Oceantec, zeinetan Iberdrolak eta Tecnaliak parte hartzen duten, programan interesa daukana.

Espanian, Santanderren badago “Planta de la Energía de las Olas” delakoa. Bertan, 35 metroko luzera eta 10 metroko diametroko buia batek 10 kilowatio sorten ditu. Kantabriar proiektuak aurreikusita dauka beste 9 buia instalatzea, hauetan 2.500 etxetan kontsumitzen den energia sortuko litzateke.

Lehorreko azpiestazioa tentsio handiko linea bati lotuta egongo da (ia erabiltzen ez dena), hain zuzen ere, aurrerago Basordako kalan kokatuko zen Lemoizko zentral nuklearra hornitzeko linean. Hau 30 kWkoa da. Eskualde horretan badagoen beste bat erabiltzeko aukera ere badago.

Zenbait lursail pribaturen erabilera ere aurreikusten da. Egun, baserriak edo nekazaritza-eremuen kalifikazioa daukatenak.

Proiektu hau ikerketa sakonean oinarritu behar da, eta honetatik eratorritako informazio eta hausnarketa osoa gizarteratu behar da eta partehartzerako bideak zabaldu behar zaizkie interesaturiko gizarte-eragile guztiei, epaitu dezaten, aldeko eta kontrako puntuak aztertu eta kontsentsuan oinarritutako erabakia hartu dezaten.

Beste energia-ekoizpen modu baten aprobetxagarritasunari dagokion ikerketa denez, ingurumenean sortutako eraginekin batera, energia gain-kontsumoaren eredia zalantzan jartzearekin lotu behar da, baita bizimoduaren areagotzearekin eta dagoenaren edo etorkizunean beharko den energia guztia ekoiztearekin ere. Zentzu honetan, Eguzkik uste du Bimep Plataformarenaren bezalako proiektuen ikerketetan energia-eredua eztabaidatzea ezinbesteko baldintza dela, energia kontsumoaren etengabeko hazkundera, eta energia lortzeko modu guztien sorrera haietariko bat ere beste ekoizpen moduen ordezkoa edo egiazko alternatiba ez delarik.

Beraz, energiaren ekoizpen eta kontsumo eredia zalantzan jarri barik, kontsumoaren aldeko apustua eta ekoizpen moduak ordezkatu egin gabe, Eguzkik ezin du Bimep-eko itsaso-ikerketa babestu.

Bereziki, azpimarratu behar dugu itsasoa gizakientzako eremu helezina eta etengabe erasotua dela, leku fisiko bezela ezartzen dizkigun mugekin. Itsasoa aukera itzela da dauzkan balioengatik, energetikoak barne, baina, aldi berean, bere bizia ia guztiz agortua izan den espazio naturala da. Arrazoi honegatik, itsas-ekosistemaren babesa nazioartean lehentasunez defendatu behar da.

Bimep plataformaren proiektuak ekoizpen moduen eta kontsumoaren gutxitzearen aldeko egiazko konpromisoaren arteko aurkakotasuna bada, hau da, energia nuklearra eta termikoaren ezabaketa balekar, positiboki aztertu eta baloratuko litzateke ekoizpen modu hauek sortutako gaitzekin konparatuta onargarria bada, betiere energia alternatibo eta berriztagarrien ikerketa eta aplikazioen azterpen globalari lotuta.

Horrez gain, ingurune naturalean gauzatutako ikerketa proiektu ororekin bezala, Eguzkik eskatzen du ikerketa garaia amaitzean inbaditutako eta desnaturalizatutako ekosisteman eta ingurunean hasierako egoerara bueltatzeko baldintzak ikertu eta berma ditzala.


Halaber, EVEk Euskadiko energia ekoizpen eta kontsumoaren helburuak, xedeak eta premiak argitu gabe darrai (batez ere KRISI GLOBALAREN GARAI honetan); bai epe laburrera, ertainera edo luzera. Bestalde, ez ditu zehaztu ekologikoki jasagarria izango den garapena edo urbanismoa sustatuko duten

modu edo metodoak. Begi bistakoa da, baita ere, instituzio publikoen artean guzti honen inguruan dagoen deskoordinazioak gure herriko lurretan gauzatutako proiektu guztietan are gehiago nabarmentzen dituela aipatutako ebaluazioen karentziak, batez ere lehentasunezko aurrekontu publikoei dagokienez.

Bestalde, lotuta dagoen eta guretzako, euskal mugimendu ekologista gisa, alde garrantzitsua “BASORDAKO ZENTRAL ATOMIKO OHIA”ren instalazioen egitura eta lurraldearen etorkizunaren inguruan eztabaidatzea eta zehaztea da. “Bimep plataforma” horrekin... Posiblea litzateke itsas plataforman sortutako energia elektrikoa Basordako instalazioetan erabiltzea edo bertako funtzionamendu medioak birmoldatzea?

NOLANAHI ERE, ARGITZEA OSO GARRANTZITSUA IKUSTEN DUGUN ZEHARKAKO ALDEA DA HAU, ONARPENERAKO BALDINTZEN ATALEAN AZALDUTAKOARI LOTUTA. EZAGUTZEN DITUGUN P.T.P. ETA P.T.S.EK EZ DUTE EZER ARGITZEN HONEN INGURUAN!!!!

Egiaztatu dugun zeharkako, baina ez garrantzi gabeko, beste alde bat “energia berdeen ekoizpena”rena da. Horri lotutako argi indarraren prezioa % 17 igo da estatu mailan, Europar Batasuneko (EB), %5koa izan dena, baino askoz altuagoa. Zein da honen azalpena?



EGUZKI BIMEP ALTERNATIBA BERDETZAT

HARTZEAREN KONTRA DAGO

Eguzkin harritzen gaitu zenbait instituzioen itxurakeria Bimep gure kostalde txikiarentzako jasangarri edo ekologiko gisa saltzen dutenean. Hau gero eta sarraskituago dago, Bilboko superportua, Pasaian egingo duten aurrekoaren kalkoa, kirol-portuen ugaritzea eta kostarean urbanizatzeko basatia.

Izan ere, milioi bat eta ehun mila lagun biltzen dira gure lurraldearen %12n. Eta portzentai hau Uribe Kostarantza zabaldu nahi da, non plataforma kokatu nahi den.

*Gure kostaldean porlandu gabeko eremu nahikoa daukagu itsasertzean 8km²-ko plakekin okupatzeko?

*Are garrantzitsuagoa, noizbait Ehko neurrigabeko energia kontsumoa neurtzeko geldituko gara?

*Gure kostaldea porlantzen segituko dugu kalak eta itsaslabarrak suntsitzen eta nekazal lursailak okupatzen?

*Buia hauek ez dituzte jalkin koipetsu eta antioxidanterik behar izango ala?

*Lemoizko eskualdeak ingurune-aberastasun itzela dauka. Horregatik, babes handiagoa eduki beharko luke. Itsaso-erreserba bat ere sortu litzateke.

*Zenbait lanpostu sortzeak edozein motatako ingurune-eraso baimentzen du ala?

Bimep proiektuari dagokionez

–Zergatik proiektu honek ez du ingurumenarekiko eraginaren inguruko azterketarik?

–Itsasoaren okupazio zabalarentzako ez litzateke beharrezkoa izango?

–Kostalde horretan ez da ikusten fauna eta landaredia ala? Eta paisaian sortuko duen eragina?

–Buia haiek ez dituzte beharko jalkin koipetsu eta antioxidatzailerik ala?

–20 MW lortzeko merezi du horrelako sarraskia?

Eguzkin ez dugu uste uste natura horrenbeste hondatu behar dela energia jasangarrien inguruan ikertzeko. Nork ziurta dezake gaur 8km² diren lekuan bihar ez direla 16 izango?

Gure kostaldearen okupazioa eta urbanizazioa gero eta basatiagoa da. Gure itsasoaren suntsiketa eta kutsadura gero eta handiagoa.

Gaur egun ekoizten ari diren energia jasangarriak ez dira fosil eta kontaminanteen alternatiba edo ordezkioak. Alderantziz, espekulatiboak baino ez dira. Eguzkin ez gaude prest gure itsaso eta mendietako metro bat ere gehiagori uko egiteko gutxi batzuen probetxu ekonomikoaren alde.

Gure lurraldeko zentzugabeko energia kontsumo gorakorren aurrean AHT bezalako makroproiektuei lotutako xahutzea eta gaur egun dagoen energia-horniketaren inguruko negozioa salatzen ditugu; hori dela eta, eztabaida eta gizartearen osotasunak erabaki arteko energia-ekoizpanerako EHko proiektu guztien atzeratzea eskatzen dugu.

Aipatutako plataformaren hasierako eremua Lemoizko herrian edota udalean eztabaida sozio-politiko eta demokratikoa gauzatu gabe, bertan kokatuta egongo den arren. Egiatzen dugu, baita ere, eskualdeko zenbait elkarte sozio-ekologikoen aurkakotasuna eta alternatiba kritikoak; halaber, kofradia eta Armintzako portuko arrantzale profesional zein afizionatuena, zeren eta, plataformak sortuko duen oztopoa dela eta ia ezinezkoa eta arriskutsua bihurtuko bailuke portutik irtetea eta bertaratzea.

Itsas inguruneari dagokionez, plataformaren H.M., I.M. eta I.an hainbat arrantza gune daude, tokiko itsasbazterreko arrantzakoa zein Bermeoko arrantzaleena ere. Zer gertatuko da guzti honekin hasierako instalazioa eta aurreikusitako ondorengo zabaltzearen eraginez?

Azkenaldian ezagutu eta babestu dugu Oceana (munduko ozeano eta itsasoak berreskuratzeko lanean diharduen nazioarteko erakundea) eta Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak (EBEO) Donostiatik Biarritzeraino korridore ekologikoa sortzeko egindako proposamen eta ikerketa zientifikoa, bertako itsas hondoko fauna eta landaredia babesteko helburuarekin.

Antzeko gaiekin segitzeko, zientzia instituzio hauek espainiar gobernuak eta eusko jaurlaritzak RED NATURA 2000 eta DE HÁBITATS DE LA U.E.ri dagozkien betebeharrak bete ez dituztela salatu dute. Azken honetan betetzeko epe maximoa 2012an amaitzen da.

Bimep kokatzen den itsas ingurune osoan baliogarria da eredu zientifiko-ekologikoa. Egitasmo honek ez dauka ingurugiroko kalte ikerketa nahikorik, bereziki bertoko itsas eta espezien mugimendu eta bizilekuari buruz, ezta itsasbazterreko arrantzari buruz ere.

Gogora dezagun INGURUGIROA BABESTEKO LEGEAK bere helburuen artean GUNE BABESTUEN SAREA SORTZEA jasotzen duela, eta zehazki 26. artikuluan honako hau esaten duela hitzez hitz:

"Itsas-lurreko ingurunetako sakon eta azalerak babesteko funtzeskoak diren elementuen eta bide ekologikoen zainketa bultzatu behar da."

Armintza, Basorda, etab.eko inguruneek baldintza legal horiek euki behar dituztela uste dugu, eta Oceania eta EBEOren txosten-proposamenaren aipatutako adibidea Armintza-Bakio-Bermeoko kostalderako aplikagarria dela.

Hausnarketa guzti hauek datozen hurrengo zalantzak planteatzen dizkigute:

*Ze norabide eta kostu ekologikoa daramatzate eskaera eta ekoizpen energetikoek?

*Posiblea da ekoizpen horren garapena plangintza arduratsu eta jasangarriaren bidez egitea?

*Zein da etengabeko garapen energetikoaren arrazoia, estatuak ekoizpen totalaren soberakinaren %20 esportatzen badu?

*Zelakoa izan beharko litzateke gure kostaldeko okupazioa eta urbanismoa? Babes zorrotzeko eskualdeak ezarri behar dira?

*Galdera hauei dagozkien erantzun ezak azaltzen ditugun ondorio egiaztagarriak dakartza:

-Gure kostaldearen okupazioa eta urbanizatzeko espekulatibo eta ia basatia.

-Gure itsasoaren etengabeko suntsiketa eta kutsadura, bioaniztasunari kalte eginez.

-Gure arrantzaleen etengabeko desagerpena kalen eta habitaten falta dela eta.

-Datozen belaunaldientzako itsas-erreserben premia larria.

-Herri nortasunaren galera, penintsulako porlandutako beste zati bat bihurtuz.

Guzti honen aurrean eta txostenean zehar azaldutakoaren korolariora gisa, hau esaten amaitzen dugu:

**ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BAI,
BAINA EZ EDOZELAN!!**

Eguzki-ren hirigintza planifikazioa, lur antolamendua eta ingurugiroko Batzordea.

2010eko ekaina